

MUNGIA BIDEA KALEKO HIRIGINTZA-OBRA EGITEKO KONTRATUA ARATUKO DABEN ADMINISTRAZIO-BALDINTZEN ORRIAK ONESTEA

LEHEN BALDINTZA.- XEDEA ETA SAILKAPENA.

Kontratuaren xedea da, Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniari Carlos Corral Madariagak idatzitako **Mungia bidea kalean hirigintza-obren** ganeko proiektu teknikoa egitea.

Kontratua obra-kontratutzat hartuko da, Herri Alorreko Kontratuei buruzko Legearen 6. artikuluan ezarritakoarekin bat etorruta, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua.

BIGARREN BALDINTZA.- HAUTATZEKO JARDUNBIDEA ETA ESLEIPENA.

Mungia Bidea kaleko hirigintza-obren kontratua esleitzeko modua jardunbide irekiz izango da. Interesa daukaten enpresari guztiak proposamenak aurkeztu ahal izango dabez eta, ezingo dira adostu kontratuaren baldintzak, Herri Alorreko Kontratuei buruzko Legeko 157. artikulua araberaren arabera.

Proposamenak baloratzeko eta eskaintzarik onuragarriena zein den zehazteko, kontratuari lotutako esleipen-irizpide hauek kontuan hartuko dira, Herri Alorreko Kontratuei buruzko Legeko 150.1 artikulua eta orriotako zortzigarren baldintzaren arabera.

HIRUGARREN BALDINTZA.- KONTRATUGILEAREN PROFILA.

Udal honek, bere kontratu jardueraren gaineko informazioaren gardentasuna eta herritarren esku egongo dela ziurtatzeko beste edozein publizitate baliabide erabiltzeari kalterik egin gabe, Kontratatuzailearen Profila dauka ezarrita, hurrengo web orri honetan erregulatutako zehaztapenen arabera ikusteko moduan, www.gorliz.net

LAUGARREN BALDINTZA.- ZENBATEKOA ETA KREDITUA BADAGOELA.

Kontratu honen zenbatekoa 324.428,08 eurokoa da eta gehitu egin behar jako dagokion bez, 68.129,90, euro. Guztira 392.557,98 euro.

Beren beregi erasota geratzen da badagoela kreditua kontratua betetzearen ondoriozko bete beharrei aurre egiteko. Herri Alorreko Kontratuei buruzko Legeko 109. artikulua araberak.

BOSGARREN BALDINTZA.- KONTRATUAREN IRAUNALDIA.

Mungia Bidea kaleko hirigintza-obrak gauzatzeko epealdia 6 hilabetekoa izango da.

Obra kontratua gauzatzen hasiko da zuinetaren egiaztapen-agiriaz, hilabeteko epean kontratua gauzatzen dan egunetik hilabeteko epealdian.

Kontratu-hartzailea berandutze-egoeran sartzeko ez da behar udalak, alde aurretik, betetzeko agindua ematea

Berme-aldia urte batekoa izango da behin-behinekoz jasotzen danetik. Kontratuaren xedea emon edo gauzatu ondoko hilabetearen barruan.

Behin betiko jasoko da Herri Alorreko Kontratuei buruzko Legeko 235. artikulua araberak.

SEIGARREN BALDINTZA.- KONTRATATZEKO GAITASUNA.

Gorlizko Udalarekin kontratatu ahal izango dabe norbanakoak zein lege nortasundun norbanakoak espainiar zein atzeritarrek, jarduteko gaitasun osoa izanda, Herri Alorreko Kontratuei buruzko Legeko 72. artikulua araberak, Herri Alorreko Kontratuei buruzko Legeko 60.1 aurrekusten diren egoeratako baten sartuta ez badagoz.

Erkidegokoak ez diren enpresek herri alorreko Kontratuen Legearen testu bateginaren 55. artikuluan ezarritako betekizunak ere bete behar dituzte.

Herri alorrearekin kontratuak egin ahal izango dabez asmo horrekin aldi baterako elkartzen diren enpresariak, eta ez dabe ageriko eskriturarik egin beharko, harik eta kontratua beren alde esleitzen den arte.

ZAZPIGARREN BALDINTZA.- PROPOSAMENAK ETA ADMINISTRAZIO-AGIRIAK AURKEZTEA.

Eskaintzak aurkeztuko dira Gorlizko Udaletxean, jendaurreko ordutegian, egutegiko hogeita sei eguneko epean iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita eta Kontratatzailearen profilean.

Eskaintzaile bakoitzak ezin izango dau aurkeztu proposamen bat baino gehiago. Ezin izango dau aurkeztu ere beste batzuekatz batera aldi baterako batasunean bakarka egin badau edo aldi baterako batasun bat baino gehiagotan agertzen bada. Arauok urratu ezker ez dira onetsiko berak izenpetutako proposamen guztiak.

Proposamena aurkeztu ezker, enpresariak orriotan agertzen diren klausulak onartzen ditu baldintza barik.

Eskaintzan parte hartzeko proposamenak eskaintzaileak izenpetutako hiru gutun-azal itxitan aurkeztuko dira eta bertan adieraziko da jakinarazpenetarako helbidea zein dan. Bertan hau idatziko da:

Gutun-azalaren izena eta ondorengo izenburua **Mungia bidea kalea hirigintza-obrak** kontratatzeke eskaintza-proposamena.

Gutun-azalen izenak hau dira:

«A» gutun-azala: Administrazio-Agiriak

«B» gutun-azala: Proposamen ekonomikoa eta modu automatikoan baloratuko diren agiriak.

«C» gutun-azala: Balio-iritzien mende aztertzekeak diren agiriak.

Gutun-azal bakoitzean sartu beharreko agiriak jatorrizkoak izango dira edo kopiak jatorrizkoarekin ziurtatuta, indarrean diren legeen arabera.

Gutun-azal bakoitzaren barruan ondorengo agiriak sartuko dira , eta zerrenda bat ere.

«A» gutun-azala: ADMINISTRAZIO-AGIRIAK

Lehiatzailearen erantzukizun-adierazpena, administrazioarekin kontratatzeko legez ezarritako baldintzak betetzen dituela.

Hurrengo eredu honen arabera aurkeztu behar da:

AITORPEN EREDUA

_____,jaunak/andreak, jakinerazpenetarako
helbidea: _____,kalea, _____, zk.;;
NAN _____,erakundearen izenean
(IFK _____,) diharduela

ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENA

LEHENENGOA. Parte hartuko dauela **Mungia Bidea kaleko hirigintza-obren** kontratazioan.

BIGARRENA. Mungia Bidea kaleko hirigintza-obretako kontratuaren esleipendun izateko Herri Alorreko Kontratuei buruzko Legeko 146. artikulua legez ezarritako baldintzak betetzen dituela.

HIRUGARRENA.— Bere eskaintzaren aldeko esleipen-proposamena egin ezker konpromisoa hartzen dauela egiaztatzeko kontratazio-organismoaren aurrean kontratuaren esleipendun izateko jarritako baldintzak betetzen dituela egiaztagirien jabe dala. Ondoren adierazten — Nortasun juridikoduna dala eta kasua bada, ordezkotzaduna.

— Enpresa behar bezala sailkatuta dagoela. Enpresa sailkapena eskuratzeko zain **badago**, sailkapena lortzeko eskabidea egin duela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dau, eta eskatutako sailkapena lortu dauela egiaztatu beharko dau, Lege hau garatzeko arauetan agiritako akatsak eta hutsak zuzentzeko ezarritako epearen barruan

Sailkapen eza edo nahiko sailkapen ez izatea ezingo da ordeztu gaudimena kanpoko baliabideez osatuta.

—Ez dagoela sartuta Herri Alorreko Kontratuei buruzko Legeko testu bateginekoko 60. artikuluan ezarritako debekuetan.

indarrean dauden lege xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak beteta dituela.

— Espainiako edozein epaitegi edo auzitegi motaren jurisdikzioaren mendean jarriko dala,

kontratuak zuzenean edo zeharka eragin ditzakeen gorabehera guztietarako, eta hala dagokionean, egoki dakiekeen atzeriko jurisdikzio-foruari uko eginez, atzeriko enpresa bada .e) Jakinarazpenak egiteko posta helbide elektronikoa ondorengoa dala.

LAUGARRENA.- Nortasuna eta jarduteko gaitasuna, ordezkari, sailkapena kontratatzeke debekuren bateri buruzko egiaztagiriaren ordezkari ondorengo erakunde hauek emondako agiriaren bidez ordeztu ahal izango da:

- Euskadiko Autonomia Erkidegoko kontratu-hartzaileen erregistro
- Lizitatzaileren eta Enpresa Sailkatuen Estatuko Erregistro Ofizial
- Sailkapen-ziurtagiria Herri Alorreko Kontratuei buruzko Legeko 84. artikulua.

Erasota gera daiten, adierazpen hau sinatzen dot

.....en., 20__...koarenan

Aitorlearen izenpea

Izenpetuta. _____»

«B» gutun-azala:
PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA MODU AUTOMATIKOAN BALORATUKO
DIREN AGIRIAK.

a) Proposamen ekonomikoa.

Hurrengo eredu honen arabera aurkeztu behar da:

.....jaunak/andreak, jakinerazpenetarako helbidea:,
..... kalea, zk.; NAN: erakundearen
izenean (IFK.....) diharduela, eta

Mungia

bidea kaleko hirigintza-obra kontratatzeke (prozedura irekia, eskaintza ekonomiko onuragarriena, adjudikazio irizpide batzuk) espedientearen berri izan duelarik, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuta, zk.an,egunean, eta kontratatzailearen profileen; adierazten dot, batetik, ezagutzen dudala kontratuaren oinarri den Plegua eta, bestetik, osorik onartzen dudala, lizitazioan parte hartuz eta, era berean, konpromisoa hartzen dudala, kontratuaren xede dana egiteko zenbateko honen truke: euro, eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga, euro.

.....en., 20__...koarenan

Lehiatzailearen sinadura

Izenpetuta. _____.

b) Gizarte-baldintza

Langabezia dagoen langileak kontratatzeari buruzko ziurtagiriak.

«C» gutun-azala: BALIO-IRITZIZ BIDEZ AZTERTZEKO AGIRIAK

Balio-iritziz irizpideak aztertzeako beharrezkoak diren agiriak sartuko dira.

ZORTZIGARREN BALDINTZA.- ESLEITZEKO IRIPIZPIDEAK.

Proposamenak baloratzeko eta eskaintzarik onuragarriena zein den zehazteko, esleipen-irizpide hauek hartuko dira kontuan:

BEREZ AZTERTU DAITEKEZAN ERIZPIDEAK 80 puntu

Honako erizpideen arabera baloratuko da:

*.- Proposamen ekonomikoa (zenbatekoa):

Haztapena: 0- 50 puntura. Kalkulua egiteko ondorengo formula erabliko da:

- $B \leq A$: $P_i = 40 \times B_i / A$
- $B \geq A$: $P_i = 40 + 10 \times (B_i - A) / (B_{max} - A)$

Non:

- P_i : i eskaintzaren puntuazioa.
- B_i : i lizitatuzaileak aurkeztutako beherapena lizitazio-aurrekontuarekiko, ehunekotan (adib. beherapenaren % 10, $B=10$). Ehuneko ehuna eta lizitazio motarekiko eskaintza ekonomiko bakoitzaren ehunekoaren arteko aldea izango da proposamen horren beherapena.
- B_{max} : lizitatuzaileek aurkeztutako eskaintzetatik gehieneko beherapena portzentaje-unitateetan, betiere balore anormala edo desproporzionatua duten eskaintzetatik hartu ez diren eskaintzen artean.

- Bmed: aurkeztutako eskaintzetatik batezbesteko beherapena, betiere balore anormala edo desproporzionatua duten eskaintzat hartu ez diren eskaintzak.
- $A = 0.75 \times Bmed$.

*.- Gizarte-erizpideak:

Langabezi egoeran dagozan langileak kontratatzeagatik: 10 puntu langile bakoitzeko, gehienez ere 30 puntu.

BALIO-IRITZIEN MENDE AZTERTZEKOAK DIREN AGIRIAK: 20 PUNTU.

HOBEKUNTZAK: Proiektuaren hobekuntzat joko dira berariazkoak eta zuzen moduan azaltzen direnak, proiektuari buruzko konponbideak, materialen arloko hobekuntzak, ohi besteko ekarpenak eta beste batzuk. Ez dira ontzat emongo proiektuarekin zuzenean lotuta ez dagozan proposamenak.

BEDERATZIGARREN BALDINTZA.- KONTRATAZIO-MAHAIA.

Herri Alorreko Kontratuei buruzko Legeko Bigarren xedapen gehigarriko 10. puntuaren arabera, Kontratazio-mahaiko buru korporazioko kide bat edo funtzionario bat izango da. Kontratazio Mahaia gutxienez lau kide izango ditu, eta kide horietako bat izango da idazkaria eta kontu-hartzailea, bai eta kontratazio organoak karrerako funtzionarioen artean edo korporazioaren zerbitzupeko langileen artean edo korporazioko kide hautatuen artean izendatutako beste batzuk ere.

Kontratazio-organoak izendatuko dituen kideak osatuko dabe kontratazio-mahaia.

HAMARGARREN BALDINTZA.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK.

Herri-administrazioak administrazio-kontratuetan dituen eskumenak, Herri Alorreko Kontratuei buruzko Legeko 210. artikulua araberak:

- a) administrazio-kontratuak interpretatzeko.
- b) kontratuok betetzean sortutako zalantzak ebazteko.
- c) herritarren interesa dela-eta kontratuak aldatzeko
- d) kontratuok suntsiaraztea erabakitzeko eta suntsiaraztearen ondorioak.

HAMAIKAGARREN BALDINTZA.- PROPOSAMENAK ZABALTZEA.

Kontratazio Mahaia proposamenak aurkezteko epea amaitut a batzartuko da eta "A" gutunazalak irekiko ditu eta barruan daukaten administrazio-agiriak kalifikatuko ditu

Beharrezkoa bada, Mahaia gehienez ere hiru eguneko epea emango dau lehiatzaileak zuzendu dagiazan aurkeztutako agirietan egindako akats edo konpondu ahal diren hutsegiteak.

Ondoren "C" gutun-azalak ireki eta aztertuko ditu.gutunazal horietan egongo dira aztertzeko balio-eritzi baten mendean dagozan irizpideak.

Aipatu proposamenak irakurri ondoren, Mahaia eskatuahal izango ditu beharrezkotzat jotzen dituen txosten teknikoak, haiek baloratzeko Plegu honetan ezarritako irizpide eta haztapenen arabera.

HAMABIGARREN BALDINTZA.- AGIRIAK ESKATZEA.

Barru batzartuta berriro Kontratazio-Mahaia, balio-iritzia eskatzen daben irizpideei emondako haztepena jakitera emongo da. Jarraian "B" kartazalak irekiko dira.

Ikusirik balorazioak aztertzeko balio-iritzi baten mendean dagozan irizpideena ("C" kartazala) eta berez azterteketa irizpideena ("B" kartazala)-, kontratazio-mahaia kontratu honen esleipenduna proposatuko dau.

Kontratazio-organoak lehiatzaileari eskatu egingo deutso eskaera jasotzen dauen egunaren biharamunetik kontatzen hasita hamar egun balioduneko epean, zergen eta Gizarte Segurantzaren inguruko betebeharrak betetzen egunean dagoela zuzitzeko agiriak edo emon

daiola baimena kontratazio-organoari agiriok zuzenean jasotzeko. Horrez gain, epe berean, kontratua gauzatzeko erabili edo jarri beharreko bitartekoak, 64.2 artikulua araberako hitzemandakoak, benetan dituela ziurtatzen daben agiriak aurkeztu dagiazan, baita dagokion behin betiko bermea eratu izanarenak ere.

HAMAHIRUGARREN BALDINTZA.- BEHIN BETIKO BERMEA.

Abantailarik handiena daukan eskaintza aurkeztu dauen lehiatzaileak bermea jarri duela egiaztatu egin behar dau –esleipenaren zenbatekoaren % 5a, Balio Erantsiaren gaineko Zerga alde batera utzita.

Kontratazio-organoak eskatuko dio ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintza aurkeztu duen lizitatzailerari aurkez dezala, errekerimendua jasotzen duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita hamar egun balioduneko epean

Berme hori honako modu hautakoren batean emon ahal izango da:

a) Dirutan edo Herri-Zorrekoko baloreetan, kasu bakoitzean, Lege hau garatzen duten arauetan ezarritako baldintzen arabera. Eskudirua eta dagokien liburuetan idatzitako baloreen ibilgetze-ziurtagiriak Gordailuen Kutxa Orokorrean edo kutxa horrek Ekonomia eta Ogasuneko ordezkarietan dituen bulegoetan jarri behar dira, edo, bestela, autonomia-erkidego edo toki-erakunde kontratatzaileen kutxa nahiz establezimendu publiko parekoetan, kontuan hartuta zein administratziotan izan behar duten eragina, eta, betiere, lege hau garatzeko arauak ezartzen dituzten erak eta baldintzak beteta.

b) Abal bidez, Lege hau garatzen daben arauak xedatutako modu eta baldintzetan prestatuta bankuek, aurrezki kutxak, kreditu kooperatibak edota elkarren bermerako sozietateak, Espainian jarduteko baimena duten heinean. Abal hori aurreko a) letran adierazitako establezimenduan ezarri behar da

c) Kauzio-asegurua kontratu bidez, hura Lege hau garatzen daben arauak xedatutako modu eta baldintzetan eginda, arlo horretan

jarduteko baimena dauen aseguru-erakunde batekin. Aseguruaren ziurtagiria emon behar da aurreko a letran adierazitako lekuetan.

Bermea ez da itzuliko edo indargabetuko, berme epea amaitu eta kontratua behar bezala bete arte.

Berme honek erantzungo deusie herri-alarreko kontratuen legearen testu bategineko 100. artikuluan jasotzen diren kontzeptu guztiak. Kontratua amaitzen denetik urtebete igarota, kontratistari egotz ezin dakizkiokeen kausak direla medio, ez jasotzeko egintza formalik, ez likidaziorik egin ez bada, itzuli edo ezereztu egingo dira bermeak, luzapen gehiagorik gabe, 100. artikuluan aipatutako erantzukizunei aurre egin jakiela egiaztatu ondoren.

HAMALAU GARREN BALDINTZA.- OHIKOTIK KANPOKO BALIOAK EDO NEURRIGABEAK DABEZAN ESKAINTZAK.

Eskaintzak ohikotik kanpokoak edo neurribakoak diren ondorengo parametroen arabera neurtuko da.

- o herri-administrazioetako kontratuei buruzko Araudi nagusia onesten dauen urriaren 12ko 1098/2001 errege-dekretuaren arabera jokatu da.

Proposamen bat neurrigabea edo ohikotik kanpokoia izan daitekeelako susmoa izan ezker, entzunaldiaren izapidea egin beharko da, proposamena aurkeztu duen lehiatzaileak esateko zer duen entzuteko, eta eskaintzaren balorazioa arrazoitu eta eskaintzaren baldintzak zehaztu daizan, herri-alarreko kontratuen legearen testu bategineko 152. artikuluko 3. eta 4. ataletan zehaztutako jardunbideari ekingo jako. Eraitzaren arabera kontratazio-organismoari proposatuko deitso onestea edo ezestea.

HAMABOS GARREN BALDINTZA.- KONTRATUAREN ESLEIPENA.

Eskatutako agiriak jasota kontratazio organoak kontratua esleitu beharko dau agiriak jaso eta ondoko bost egun balioduneko epean.

Baldintzen agirian azaltzen diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat egonez gero, ezin izango da adierazi lehiaketa bertan behera geratu dela.

Esleipena arrazoitu egingo da, hautagai edo lehiatzaileei jakinaraziko jakie, eta, aldi berean, kontratatugilearen profileen argitaratuko da.

Edozein modutan ere, Jakinarazpenak, beharrezkoa den informazioa edukiko dau, baztertutako lizitatzailleak edo alde batera utzitako izangaiak aukera izan dagian, behar bezala oinarritutako errekurtsoa aurkezteko adjudikazio erabakiaren aurka. Zehazki, hurrengo alderdi hauek jaso behar ditu:

HAMASEIGARREN BALDINTZA.- KONTRATUA GAUZATZEA.

Kontratua gauzatu egingo da administrazio-agiri baten hamabost laneguneko epearen barruan, behin betiko esleipena jakinarazten dan egunetik aurrera kontatuta. Dokumentu hori nahikoa titulu izango da edozein jendaurreko erregistrora heltzeko

Kontratu-hartzaileak eskatu ahal izango du kontratua ageriko eskrituran jasotzea. Horren gastuak bere pentzura izango dira

HAMAZAZPIGARREN BALDINTZA.- ESLEIPENDUNAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

Esleipenaren hartzaileak eskubide hauek ditu:

- Zenbatekoa jasotzera, baldintza-orriotan jasotakoaren arabera.
- Zerbitzua eskaintzeko modua dala-eta, salaketa bat edo kexa bat jarri ezker, kontratatutako prestazioa ondo edo gaizki gauzatu duen adierazteko egiten zaizkion oharrak jakiteko eta haietaz esateko duena entzun dakion.
- Zerbitzua emoteko eskura jarriko jakozan udal ondasunak erabiltzeko

Kontratak ondorengo bete beharrak izango ditu:

- Kontratua gauzatzea.
- Obra egikaritzen hastea hamabost egun balioduneko epean, kontratua gauzatzen danetik
- Obra geraraztea emondako epeen barruan.
- Obra egikaritzea , proiektuari, orriei eta zuzendaritzaren aginduei lotuta. Administrazioaren berariazko baimenik barik ezin izango deuto kontratua osorik edo zati batean beste pertsona bati laga
- Hamabost eguneko epean, sor daitezkeen ezintasunak edo bateraezintasunak jakinaraztea.
- obrak zuzendu edo ikuskatzeko, edo zuinketa egiaztatzeko teknikari-lanak egiteagatik tasak ordaintzea, eta aplikatu beharko litzatekeen beste edozein.
- Litzazioaren eta kontratuaren ondorioz sortutako gastu guztiak ordaintzea.
- Zuzendaritza teknikoari erraztasun guztiak emotea, zuinketak, azterketak, neurketak eta probak, baldintza teknikoek eta ekonomikoek orrietan jarritako baldintzak betetzen diren egiaztatzeko.
- Seinaleak jartzea obrarako sarbidean, lanen eremuko zirkulazioa eta lanak direla-eta, arriskutsuak izan daitezkezan lekuetan, esparruan zein inguruetan.
- Kontratuak eragindako instalazioak ixtea obrak egiten hasi orduko egozan egoera beretsuan.
- Gizarte Segurantzarekin dabezan betebeharrak egunean izateari buruzko ziurtagiria hiru hilez behin aurkeztea.
- Laneko higiene eta segurtasunari buruz indarrean diren arauak zehatz betetzea.
- Lan-istripuen gertakizunak eta lanbide-gaixotasunak dagokion Mutualitatearen bidez estalduko da.
- Euskera eta gaztelania hizkuntza ofizialak dira eta hizkuntza bien erabilera kontratua egikaritzeko baldintza da. Kontratua gauzatzeko baldintzetako bat da bi hizkuntzak erabiltzea, Kontratuaren klausuletako edozein betetzen ez denerako ezarritako ondorioak ekarriko ditu betebeharrak hori ez betetzeak.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.2 artikulua agindutakoa bete egingo da , "kontratua betetzeko baldintzen artean esleipendunak izango duen betebeharrak bat jasoko da: obra egin edo zerbitzua ematerakoan, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatzea".

HAMAZORTZIGARREN BALDINTZA.- ZUINKETA EGIAZTATZEA.

Obra kontratua gauzatzen hasiko da zuinketaren egiaztapen-agiriaz, hilabeteko epean kontratua gauzatzen dan egunetik 15 eguneko epealdian.

Ondoren baimena emongo da obrak hasi daitezcan eta batzar-agirian erasota geratuko da, eta egikaritzeko epea hasiko da.

HEMERETZIGARREN BALDINTZA.- LANERAKO SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA.

Kontratua gauzatuta, esleipendunak obrarako laneko segurtasun eta osasunari buruzko plana egingo dau , proiektuko segurtasun eta osasun planari lotuta. Bertan egindako aurreikuspenak aztertu, garatu eta osatu egingo dira.

Plan horretan sartuko dira kontratugileak proposatuko dituen prebentziorako aukerako neurriak, arrazoi teknikoak emonda. Neurriak ezin izango dira izan azterlanean aurreikusitako babes-maila baino murrizagoak.

Plana udalak onetsitako dau obra hasi baino lehenago. Aurrez segurtasun eta osasun arloko koordinatzailearen txostena jasoko dau edo obraren zuzendari teknikoaren txostena koordinatzailea izendatzea aginduzkoa ez balitz, lan-agintaritzari jakinarazi egingo deuto.

HOGEGARREN BALDINTZA.- PREZIOEN BERRAZTERKETA.

Salneurriak ezin dira berraztertu.

HOGETA BATGARREN BALDINTZA.- OBRAK JASOTZEA ETA BERME-EPEA.

Obrak amaitutakoan kontratuaren arduradunak agertu behar du obrak jasotzeko egintzara, arduradunik izendatu bada, edo administrazioak bere ordezkari izateko izendatutako teknikari batek, obren zuzendaritzaz arduratu den teknikariak, kontratistak (bere teknikariaren laguntzaz, egoki baderitzo).

Obrak jaso eta hiru hilabeteko epearen barruan, gauzatutako obren azken ziurtagiria onetsi beharko du kontratazio-organoak, eta ordaindu egingo zaio kontratistari, kontratuaren likidazioaren kontura.

Obrak egoera onean badaude eta emandako aginduen arabera gauzatu badira, administrazio kontratatzaileak bere ordezkari izendatutako funtzionario teknikariak jasotzat joko ditu; jasotzeko egintzaren akta egingo da, eta orduan hasiko da berme-epea.

Alabaina, obrak ez badaude jasotzeko moduan, halaxe adieraziko da aktan. Orobat adieraziko dira obra-zuzendariak sumatutako akatsak, eta beharrezko diren jarraibideak ere zehaztuko dira, bai eta akatsak zuzentzeko epe bat ere.

Aipatutako epea igarota kontratistak ez baditu oraindik zuzenketak egin, aukera bi izango dira orduan: beste epe bat eman (luza ezinezkoa) edo kontratua suntsiarazi.

Urte bateko berme-epea ezarriko da obrak jasotzen dan egunetik zenbatzen hasita.

Berme-epea amaitu aurreko hamabost eguneko aldian, obra-zuzendari teknikoak, bere kabuz edo kontratistak halaxe eskatuta, obren egoerari buruzko txostena egingo du. Txosten hori aldekoa bada, kontratista erantzukizun guztitik jare geratuko da, ondorengo artikuluan ezarritako salbuespena izan ezik; bermea itzuli edo ezereztu, kontratua likidatu, eta, hala badagokio, ordaindu bako betebeharrak ere ordainduko jakoz, hirurogei eguneko epean. Txostena ez bada aldekoa, eta ikusitako akatsak obrak gauzatzean agertu badira eta ez eraikitakoa erabiltzean, zuzendari teknikoak, berme-epeak dirauen bitartean, dagozkion jarraibideak emango dizkio kontratistari, eraikitakoa behar bezala konpon dezan; horretarako, epe bat jarriko dio, eta, epe horrek dirauen bitartean, kontratistak izango du obrak kontserbatzeko ardura, eta ez du eskubiderik izango berme-epea luzatu izanagatik dirurik jasotzeko.

Berme-epea amaitu eta gero obra hondatu egiten bada eraikuntzak ezkutuan dituen akatsen ondorioz, eta akats horiek kontratistak kontratua bete ez duelako sortu badira, kontratistak izango du kalte eta galerei aurre egiteko erantzukizuna hamabost urtez, obra jasotzen denetik kontatzen hasita.

HOGETA BIGARREN BALDINTZA.- KONTRATUA BETETZEA.

Obra-kontratua zuinketa egiaztatzeko aktarekin hasiko da gauzatzen.

Horretarako, obren ardura daukan administrazioko zerbitzuak, kontratista aurrean dela, lizitazioaren aurretik egindako zuinketa egiaztatuko dau.

Obrak gauzatu, administrazio klausula zehatzen pleguan jasotako xedapenei estu-estu lotuta gauzatuko dira, eta kontratuaren oinarri den proiektuari ere estu-estu lotuta, eta obren zuzendari teknikoak eta, hala badagokio, kontratuaren arduradunak, bakoitzak bere eskumenen barruan, kontratuaren interpretazio teknikoa eginez kontratistari emandako jarraibideen arabera.

Kontratistak, beraz, kontratua gauzatzeko finkatutako guztirako epearen barruan bete behar du kontratua.

Kontratista berandutze-egoeran sartzeko ez da behar administrazioak, aldez aurretik, betetzeko agindua ematea.

HOGETA HIRUGARREN BALDINTZA.- KONTRATUA ALDARAZTEA.

Kontratua ezin da aldatu. Hala ere, aldaketak egin ahal izateko, beharrezkoa izango da ondorengo egoera hauetako bat dela behar bezala arrazoitzea:

*.- Kontratututako prestazioa desegokia izatea kontratuaren bidez erantzun nahi diren beharrak asetzeko, proiektua edo zehaztapan teknikoak idaztean egindako akatsen edo ez-aipatzeen eraginez.

*.- Proiektua edo prestazioari buruzko zehaztapenak desegokiak izatea, kausa objektiboak direla medio (geologia, baliabide hidrikoak, arkeologia, ingurumena edo antzekoak); betiere, kontratua esleitu ondoren agertu badira eta aurreikusitako baziren proiektua edo zehaztapen teknikoak modu profesionalean idazteko behar besteko arretaz lan eginez.

*.- Ezinbestearen edo ezusteko kasuaren eraginez, prestazioa hasieran zehaztutako baldintzetan egiterik ez izatea.

*.- Prestazioa nabarmen hobetuko duten aurrerapen teknikoak sartzea komeni izatea, aurrerapen horiek kontratua esleitu ondoren jarri badira merkatuan eskuragarri, teknikaren egoera kontuan hartuta.

*.- Prestazioa kontratua esleitu ondoren onartutako teknika-, ingurumen-hirigintza-, segurtasun- edo irisgarritasun-beharrei egokitu behar izatea

Aldaketa horiek ezingo izango dituzten aldatu lizitazioaren eta adjudikazioaren funtsezko baldintzak, eta aldaketa horiek beharrezko bihurtzen dituen kausa objektiboak betetzeko ezinbestekoak diren aldaketak izan beharko dute soilik.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako, ondorengo kasu hauetan lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatu direla ondorioztatuko da, herri-alorreko kontratuen legearen testu bategineko 107.3 artikuluko , a, b, c, d eta e ataletan aurreikusitakoaren arabera.

Herri-alorreko kontratuen legearen testu bategineko 219. artikuluan eta 234. artikuluan jarritakoaren arabera, erabakitako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistentzat.

HOGETA LAUGARREN BALDINTZA.- FAKTURAK.

Herri alorreko kontratuen legearen testu bateginaren hogeita hamahirugarren xedapen gehigarriaren arabera kEmandako zerbitzuengatik edo entregatutako ondasunengatik fakturak dagokion administrazio-erregistroan aurkezteko obligazioa du

kontratistak, haiek tramitatzeko eskumendun diren administrazio-organo edo -unitateetara igortzeko..

HOGETA BOSGARREN BALDINTZA.- ZIGORRAK EZ BETETZEARREN.

- Kontratista, berari egotzi daitekiozan arrazoiak direla-eta epe osoari dagokionez, berandu ibili bada, Administrazioak aukeran izango du, edo kontratua amaitzea edo zigorrak ezartzea kontratuaren zenbatekoaren 1. 000 euro bakoitzeko 0,20 euro, eguneko.

Atzerapenengatiko zehapenak kontratuaren prezioaren ehuneko 5aren multiplo batera iristen direnean, kontratazio-organoak kontratua ezeztatzeko edo zehapen gehiago ezarriz kontratua gauzaten jarraitu behar dan adosteko eskumena izango du. Azken kasu horretan, kontratazio-organoak kontratua amaitzeko beharrezkotzat jotzen dauen denboraz luzatuko dau epea.

- Kontratistak ez badu betetzen kontratua gauzatzeko behar diren baliabideak- giza-baliabideak edo gauzazkoak, — eransteko baldintza, kontratuaren aurrekontuaren % 10eko zigorra jarriko jako.

Zigorra kontratazio organoak erabakita ezarriko dira, kontratuaren arduradunak –izan ezker- proposatuta, berehala betebeharrekoa izango da, eta horiek kontratu hartzaileari ordaindu beharreko zenbateko osotik edo zati batetik kenduko dira zuzenean; edo, bestela, kasua denean, eraturako bermetik, aipameneko ziurtapenetatik kendu ezin denean

HOGETA SEIGARREN BALDINTZA.- KONTRATUA SUNTSITZEA.

Kontratua suntsitzeko arrazoiak honako xedapen hauetan daude jasota: orriotan, Herri Alorreko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 223 eta 237. artikuluetan jasotako kasuetan. Suntsipena kontratazio organoak erabakiko dau, bere kabuz edo kontratu-hartzaileak eskatuta.

Kontratua kontratu hartzailearen erruz deuseztatuz bada, behin betiko bermea bahitu egingo jako. Dena den, kopuru hori nahikoa ez

bada administrazioari eragindako kalte-galeren kalteordaina ordaintzeko, falta den kopurua ere ordaindu egin beharko du.

HOGETA ZAZPIGARREN BALDINTZA.- DATUEN BABESA.

Hogeita seigarren xedapen gehigarriaren arabera, esleipendunak beren beregi adieraziko dabe badakitela Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa eta lege hori garatzeko arauak agindutakoa bete behar dabela. Konpromisoa hartuko dabe euren langileei jakinarazteko arauok betetzearen ondorioz sortzen diren betebeharrak eta isilpean gordeko dabez kontratuak iraun bitartean eskuratuko edo jakingo dabezan informazio, agiri eta gai guztiak.

HOGETA ZORTZIGARREN BALDINTZA.- KONTRATUAREN ARAUBIDEA

Kontratuak administrazio izaera dau. Orriotan ezarritakoa aintzat hartuta arautuko da. Aurreikusita ez dagoena ondorengoan arabera arautuko da, herri alorreko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onesten dauen azaroaren 14 3/2011 legegintza errege-dekretua. 30/2007 Legea aldi batean garatzen duen 2009ko maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra (2001eko urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua). Ordezko gisa, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira eta, horiek izan ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

Erabaki horien aurka egiteko eskumena duen jurisdikzioa administrazioarekiko auzietarako izango da,

Administrazio Baldintzen orri hau tokiko gobernu-batzarrak onetsi egin dau 2014ko apirilaren 25ean egindako batzarraldian.